

Kanbio-Tasa

2016. urteko urriko batez besteko kotizazioa: 1€ = 1,1026\$; 1€ = 114,47¥

Urrian, Euroaren Dolarrarekiko balio-galera esanguratsua gertatu da eta azaroan beherazko joera hori mantentzen da. Yenaren aurrean, ordea, irailetik nolabaiteko goranzko bilakaera erakutsi du Euroak, azaroan areagotzen ari dena.


Dolarrarekin alderatuta euroaren batez besteko kotizazioa, 1,1026\$/€-an kokatu da **urrian**; hilaren 3an 1,1236\$/€-ko gehieneko kotizazioa izan zuen eta hilaren 25ean 1,0872\$/€-ko gutxieneko kotizazioa. Joan den urteko azaroan kotizazioa %1,07\$/€-ren inguruan kokatu zen, baina orduantxe, gorazko joera erakusten hasi zen, apirilean 1,13\$/€ mailaren inguruan nolabaiteko topea aurkitu arte. Horrezkero, beherazko bilakaera erakutsi zuen berriro, abuztuko gorakada txikiarekin eta iraileko egonkortzearekin. Urrian berriro beherantz egin du.

Azaroan beherazko bilakaera mantentzen da eta batez besteko kotizazioa 1,08\$/€-ren inguruan kokatzen da, pasa den urteko azaroko mailaren zertxobait gainerik.

Bestalde, **yenaren aurrean euroaren batez besteko kotizazioa, 114,47¥/€-koa** izan da **urrian**; hilaren 6an 116,0¥/€ -ko gehieneko kotizazioa izan zuen eta hilaren 21ean 112,96¥/€ -ko gutxieneko kotizazioa. Zortzi hilabetez jarraian yenarekiko balioa galdu ostean, **irailean eta urrian euroak nolabaiteko goranzko bilakaera** erakutsi du.

Azaroan goranzko joera hori areagotzen ari da eta batez besteko kotizazioak 116,5¥/€ maila lor lezake.

Euroaren kanbio-tasa dolarrarekin eta yenarekin alderatuta Eguneroko kotizazioaren bilakaera



	\$/€	¥/€	£/€	Yuan/€	Real/€	Rupia/€
2015						
Urr	1,1235	134,84	0,73287	7,1346	4,360	73,112
Aza	1,0736	131,60	0,70658	6,8398	4,060	71,041
Abe	1,0877	132,36	0,72595	7,0193	4,214	72,385
2016						
Urr	1,0860	128,32	0,75459	7,1393	4,402	73,204
Ots	1,1093	127,35	0,77559	7,2658	4,395	75,717
Mar	1,1100	125,39	0,78020	7,2220	4,120	74,302
Apr	1,1339	124,29	0,79230	7,3461	4,037	75,382
Mai	1,1311	123,21	0,77779	7,3864	3,998	75,702
Eka	1,1229	118,45	0,79049	7,4023	3,857	75,559
Uzt	1,1069	115,25	0,84106	7,3910	3,626	74,374
Abu	1,1212	113,49	0,85521	7,4537	3,598	75,030
Ira	1,1212	114,22	0,85228	7,4819	3,644	74,822
Urr	1,1026	114,47	0,89390	7,4198	3,516	73,578